

Asmakizunen, bertsoen edo esaeren puzzleak

Jarduera ikasturtearen lehenengo egunetan egiten da. Talde-dinamika honen helburua ikasleek elkar ezagutzea da, harremanak ezartzea eta elkarren artean konfiantza hartzen joatea. Saioa hasi ondoren, ikasle bakoitzari asmakizunaren, bertsoaren edo esaeraren zati bat emango zaio. Zati-kopurua bitik laurakoa izango da. Jarduerearen helburua ikasgelan testua osatzeko zatia edo zatiak dituzten kideak bilatzea da. Elkarrekin eseriko dira, beren buruez hitz egingo dute eta elkar ezagutzera bideraturiko galderak egingo dituzte. Azkenik, talde bakoitzak bere testu osoa irakurriko du eta elkar aurkeztuko dute, beren izenari, adinari, zaletasunei eta abarri buruzko datuak emanez. Jarduera bideratzen duen irakasleak konfiantza eta segurantzaz emango die, parte-hartzea bultzatuko du eta zailtasunak dituztenei lagundu egingo die.

ESAERAK	
Zozoak beleari...	... ipurbeltz
Hamar ardi dituenak...	... hogeitahi
Kalean uso...	... etxean otso
Abenduko eguna...	... argitu orduko iluna
Gezurrak...	... buztana labur
Zer ikusi...	... hura ikasi
Gogoko tokian...	... aldaparik ez